

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak bost erakunderekin lankidetzako protokolo bat sinatu du NPBaren kanpainarako

Diru-laguntzen eskatzaileen % 90ak telematika-kudeaketako puntu bat izango du bere udalerrian bertan

Jueves, 09 de febrero de 2012

Nafarroako Gobernuak bost finantza-erakunderekin eta nekazaritza-erakunderekin lankidetzako hitzarmen bat sinatu du [Nekazaritzako Politika Bateratuaren \(NPB\)](#) hurrengo lau kanpainetarako; hala, erakunde horiek konpromisoa hartu dute arreta eta aholkularitzako zerbitzua emateko nekazariei eta abeltzainei emandako [laguntzak](#) izapidetzeko.



Lankidetzako hitzarmena sinatzen NPBaren laguntzak kudeatzeko.

Hitzarmena gaur goizean sinatu da Nafarroako jauregian Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusi Ignacio Guemberen artean eta erakunde sinatzaileen artean: David Lezaún ([UAGN](#)), Ignacio Gil ([EHNE](#)), Ángel María Rodríguez ([UCAN](#)), María Jesús Andrés ([Caja Navarra-Banca Cívica](#)), eta Luis García ([Caja Rural de Navarra](#)). Ekitaldiaren buru izan da Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea.

Nafarroako Gobernuak laguntzak izapidetzeko bideratutako erakunde laguntzaileetako langileei prestakuntza emango die, informatikako tresnak emango dizkie eta eskaera bakarreko datuetarako sarbidea eta baita eskatzaile bakoitzari emandako ordainketa-eskubideetarako sarbidea ere, izaera pertsonaleko Datuen Babeserako [abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren](#) esparruan.

Hitzarmen horri esker, Nafarroako Gobernuak bere bulegoen estaldura zabaldu dezake nekazari nahiz abeltzainei zerbitzu hobea emateko. Kalkulatzen da eskatzaileen % 90 inguruk sarbide-puntu bat izango duela bere udalerrian bertan; hala joan-etorriak saihesteaz gain, espedienteak hobeto izapidetu ahal izango dira. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Industria Departamentuak [erakundeen atxikimendu-prozesua zabalik du](#) oraindik eta, beraz, hasierako erakunde laguntzaileen kopurua zabalduko dela espero da.

Prozesu hori egin daiteke NPB laguntzen datuak biltzeko prozesua

informatizatu delako, Nafarroako Gobernuari era telematikoan digitalizatzen eta bidaltzen zaizkionak. Sistemak "lehiatila bakar" moduan funtzionatzen du 31 laguntza-lerro eskaera bakar batean integratzen delako. Gainera, aurkeztu beharreko dokumentazioa ahal den gehien murrizten uzten du, izapidegileek esplotazioen datuak ezagutzeko aukera baitute. Telematika-sistema horri esker, kalkulatzen da 42.400 dokumenturen manipulazioa eta kontrola saihesten dela eta 27.000 bat joan-etorri Nafarroako Gobernuaren bulegoetara. Joan-etorri horiek CO2ren 352 tona isurtzea eragingo zutela kalkulatzen da. Telematika-sistemak laguntzak izapidetzen arintzen du, eta eskatzaileei ere Internet-ez beren eskaera zer egoeratan dagoen egiaztatzen laguntzen die.

2012ko NPBren kanpaina

[2012ko NPBren kanpainarako laguntzen](#) eskaerak otsailaren 1etik apirilaren 30a bitartean aurkez daitezke. 17.600 bat eskatzailek, eskaera bakar batez, 31 laguntza ezberdin jasotzeko aukera izatea aurreikusten da, hau da, guztira, 137 milioi euro. 10 laguntza-lerro nekazari eta abeltzainen errenta konpentsatzeko bideratuta daude, eta "lehen zutabe"-koak dira (Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsak osorik finantzatzeko laguntzak).

Gainerako lerroak nekazaritza iraunkorrako bat sustatzeko bideratuta daude laguntzak emanez: nekazaritza ekologikoari, desagertzeko zorian dauden abeltzaintzako arrazak mantentzeko edo plastiko biodegradagarrien erabilerari, adibidez. Zehazki, FEADERek eta Nafarroako Gobernuak kofinantzatutako "bigarren zutabe"-ko sei lerro dira, eta laguntzen beste sei lerro Nafarroako Gobernuak osorik finantzatzekoak.

2012ko laguntzen kanpainak aurreko urteetako ezaugarri berak dituzte, baina berezitasun bat du, desegokitze-aldiari amaiera ematen diola eta sektore guztiak ordainketa bakarrean sartzen dituela. Une honetan NPB 2014-2020 aldian garatuko den laguntzen eredu berri baterako prestatzen ari da, eta haren araudia oraintxe bertan eztabaidatzen ari dira estatukideen artean.